

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3416

839/2023 EBAZPENA, uztailaren 4koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren, zeinaren bidez zuzentzen baita honako Ebazpen hau: 433/2023 Ebazpena, apirilaren 27koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Laborategiko Teknikari Espezialista kategorian / lanpostu funtzionalean lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 26ko 1673/2019 Ebazpenaren bidez lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren deialdia egin den kategorian / lanpostu funtzional honetan: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Laborategiko Espezialista Sanitarioak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren apirilaren 27ko 433/2023 Ebazpenaren bidez, argitara eman zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Laborategiko Teknikari Espezialista kategoriako Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren apirilaren 27ko 433/2023 Ebazpenaren eranskinean agertzen da Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan eskainitako destinoen zerrenda, Laborategiko Teknikari Espezialista kategoriarako / lanpostu funtzionalerako. Eranskinak destinoen zerrenda jasotzen du, honako informazio honekin: eskainitako destinoen kopurua, destinoak zein zerbitzu-erakundetan eskaintzen diren eta destinoaren deskribapena, lanaldiaren xehetasunak barne.

Argitaratutako ebazpenak 2023ko ekainaren 6a ezarri du data gisa baldintzak betetzeko, merezimenduak alegatu eta baloratzeko eta destino-aukeraketa egin edo aldatzeko.

Apirilaren 27ko 433/2023 Ebazpena maiatzaren 16ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren, akatsak aurkitu dira aipatutako eranskinean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua haxe dio: «Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak».

Bestalde, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuko 18.2.c) artikulua haxe dio: «Argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira, eta horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada».

Azaldutako guztiaren ondorioz, eta langileen arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenez baliatuz

2023ko uztailaren 14a, ostirala

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpena ematea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren apirilaren 27ko 433/2023 Ebazpenaren eranskina zuzentzeko. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren ebazpen horretan, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Laborategiko Teknikari Espezialista kategorian / lanpostu funtzionalean eskainitako destinoen zerrenda jasotzen da. Hona hemen zuzenketa:

Apirilaren 27ko 433/2023 Ebazpenaren eranskinean jasotzen den eskainitako destinoen zerrendatik kanpo uztea destino hauek:

| | | |
|---|----------------------------|---|
| 1 | Arabako ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Ezagutzaren Kudeaketa-Ikerketa laguntza metodologiko unitatea-Ikerketa laguntza metodologiko unitatea / Goizez-Ez espezifikoki gehiago / 2HE-Data igarota |
| 1 | Ezker.– Enkar.– Gurut. ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Laborategi Unitatea-Genetika Laborategia-Genetika Laborategia / Goizez-Ez espezifikoki gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe |
| 2 | Ezker.– Enkar.– Gurut. ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Laborategi Unitatea-Immunologia Laborategia-Immunologia Laborategia / Goizez-Ez espezifikoki gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe |
| 1 | Ezker.– Enkar.– Gurut. ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Laborategi Unitatea-Laborategi Unitatea-Laborategi Unitatea / Goizez-Ez espezifikoki gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe |
| 1 | Ezker.– Enkar.– Gurut. ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Laborategi Unitatea-Larrialdien Laborategia-Larrialdien Laborategia / 2 Txanda-Arratsaldez eta agenda irekia goizez-Ez espezifikoki gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe |
| 1 | Ezker.– Enkar.– Gurut. ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Laborategi Unitatea-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor / 2 Txanda-Arratsaldez eta agenda irekia goizez-Ez espezifikoki gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe |
| 1 | Ezker.– Enkar.– Gurut. ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Laborategi Unitatea-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor / Goizez-Ez espezifikoki gehiago / 2HE-Data igarota |
| 5 | Ezker.– Enkar.– Gurut. ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Laborategi Unitatea-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor / Goizez-Ez espezifikoki gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe |

Apirilaren 27ko 433/2023 Ebazpenaren eranskinean jasotako eskainitako destinoen zerrendari destino hauek gehitzea:

| | | |
|---|----------------------------|--|
| 1 | Arabako ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Laborategi Unitatea-Larrialdien Laborategia-Larrialdien Laborategia / Txandakakoa, 3 Txandatan-Txandakakoa, 3 txandatan-Ez espezifikoki gehiago / 2HE-Data igarota |
| 1 | Ezker.– Enkar.– Gurut. ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Laborategi Unitatea-CORE Laborategia-CORE Laborategia / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Ez espezifikoki gehiago / 2HE-Data igarota |
| 1 | Ezker.– Enkar.– Gurut. ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Laborategi Unitatea-CORE Laborategia-CORE Laborategia / Goizez- Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoki gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe |

| | | |
|---|----------------------------|--|
| 1 | Ezker.– Enkar.– Gurut. ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Kanpo-kontsultak-Ospitale barneko kanpo-kontsultak-Giza Ugalketa / Goizez-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Data igarota |
| 1 | Ezker.– Enkar.– Gurut. ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Erreten Unitatea-Laborategi Unitatea-Laborategi Unitatea / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Mugaegunik gabe |
| 2 | Ezker.– Enkar.– Gurut. ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Laborategi Unitatea-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Data igarota |
| 4 | Ezker.– Enkar.– Gurut. ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Laborategi Unitatea-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Mugaegunik gabe |
| 1 | Ezker.– Enkar.– Gurut. ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Laborategi Unitatea-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Asteburuekin edota jaiegunekin / 2HE-Mugaegunik gabe |
| 1 | Ezker.– Enkar.– Gurut. ESI | Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Laborategi Unitatea-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor-Mikrobiolo/Parasitolog eta Serolog Labor / Goizez-Goizez 08:00-15:00- Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe |

Bigarrena.– Aldatu egin behar da apirilaren 27ko 433/2023 Ebazpenean ezarritako erreferentzia-data, 2023ko ekainaren 6an ezarria zegoena, eta beste data bat hartu behar da erreferentziatzat: 2023ko uztailaren 28a.

Ondorioz, baldintzak betetzeko, merezimenduak alegatu eta baloratzeko eta destino-hautaketa egin edo aldatzeko erreferentziatzeko data 2023ko uztailaren 28a da. 2023ko martxoko ziklo honi dagokionez, izangaiek 2023ko uztailaren 28ra arte aldatu ahal izango dute eskabidea, baita destinoen hautaketa ere. 2023ko martxoko ziklo honetan, beraz, 2023ko uztailaren 28ra arte egindako destino-hautaketa hartuko da kontuan. 2023ko martxoko ziklo honetan, prozesu orokorrean egindako eskabideak jasoko dira, baldin eta gutxienez zikloan eskainitako destinoren bat badute 2023ko uztailaren 28a amaitzen denean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren web-orrian eta EHAAAn agitara dadin agintzen da.

Laugarrena.– Gainerako jardueretan mantentzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren apirilaren 27ko 433/2023 Ebazpenean ezarritakoa. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Teknikari Espezialista Sanitarioak lanbide-taldeko Laborategiko Teknikari Espezialista kategoriako / lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza argitaratu zen.

Bosgarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAan argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 4a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.